



# Bide Berdea

## Montes de Hierro - Burdinmendi

### Gallarta - Pobeña tartea

MONTES DE HIERRO – BURDINMENDI BIDE BERDEA, ENKARTERRIETAN (BIZKAIA)

## Trantsiziozko muinodun paisaia

**Burdinmendi – Montes de Hierro Bide Berdearen** bigarren tarteak **Gallarta** auzoan (Abanto – Zierbena) du hasiera eta **Pobeña** auzoan (Muskiz) amaiera. Ibilbidearen tarte honetan Muskizeko erdigunera **desbidera** zaitzke amaiera aldera dagoen **bidegorria** hartuta, edo bidearen hasieran Arenarantz abiatu beharrean **Bilbo Handiko bidegorria** hartzeko aukera duzu. Tartearen hondartzara (Muskiz) ikusgarrian bukatzen da, paisaiaren mugarri garrantzitsu dena.

Bide Berdearen tarte honek **8 kilometro** ditu. Traslaviña – Gallartako tartearekin alderatuta, paisaiak **muino** leunagoak ditu eta **ikuspegi panoramiko** zabalez gozatzeko guneak ugariak dira. Halaber, **trantsiziozko paisaia** da, landa-eremutik kostaldera baikaramatza.

**Landazabal atlantikoaren landa-paisaia** tipikoa zeharkatuko dugu, mendeetan zehar **baserritarrek** sortua, eta gune batzuetan **industria** zein **hirigintzaren** garapena dela eta eraldaketa nabarmenak jasan dituen.

**Baserriak paisaiaren egitura** eragin duela antzeman daiteke; izan ere, beronen inguruan baratza, ukuiluak, negutegiak eta bestelako eraikin laguntzaileak kokatu ohi dira. Etxetik urrunxeago belardiak, soroak

eta fruta-arbolak kokatzen dira; eta urrutien dauden lursailetan, baso-landaketa txikiak.

Ibilbidean aurrera egin ahala **itsasoaren** presentzia nabarmentzen hasiko da, oraindik ere bistan ez izan aren, eta **erliebea** leuntzen joango da. Tartearen bukaeran iritsiko gara **kostaldera**, Arenako hondartzara (Muskiz).



*Tartearen amaieran gozatu ahal izango dugun kostako paisaia, Arena hondartzan (Muskiz)*

# Ezagut itzazu paisaia hauek hobeto bi jolasen bidez

## Zentzumenen jolasa

Normalean, paisaia ikusmenaren bidez antzematen dugu batez ere. Hala ere, gainontzeko zentzumenek inguruko paisaia hautematean paper garrantzitsua jokatzeko dute ere. Itxi itzazu begiak, eta erabil itzazu zure **entzumena**, **ukimena** eta **usaimena** paisaia hautemateko. Saiakera ibilbideko hiru toki desberdinetan egin dezazula proposatzen dizugu:

- ➔ **Gallartan**, abiatzean
- ➔ Gallartatik 4 kilometrora topatuko duzun **atsedenlekuan**
- ➔ **Arenako** hondartzan

Zeure buruan egizu zerranda bat, hautemandako **soinu** eta **usainekin**, eta **azalean jasotako sentsazioekin** (haize leuna nabaritzen al duzu, edo bortitza da?, sargori dago, edo airea hotza eta freskoa da?). Orain, egizu gogoeta horrek guztiak nola sentiarazten zaituenaren gainean, zer nolako **sentsazio** eta **sentimenduak** sortzen dituen zure baitan, eta **aldera** itzazu zurekin dauden pertsoneri sortutakoekin.



Gallartan (Abanto – Zierbena) Kardeotik dagoen ikuspegia, Montaña mendiarekin atzealdean

## Paisaiaren aldaketak

Paisaia aldatzen dabil etengabe, eta bere **dinamismoa bizirik** dagoenaren adierazle da.

Jarduera honetan **paisaiaren aldaketei** erreparatuko diegu, eta **paisaiaren kalitaterako** zeintzuk positiboak eta zeintzuk ez hain positiboak diren ebaluatuko dugu. Horretarako aurreko jolasean proposaturiko geldiune berdinak erabiliko ditugu.



Pobeña auzoa (Muskiz), Barbadungo itsasadarretik ikusita

Har ezazu tarte bat paisaian azaltzen diren **elementuak** aztertzeko (erliebearen elementuak, urarekin erlazionatutakoak, landaredikoak, nekazaritzarekin zein abeltzaintzarekin erlazionatutakoak, eraikinak, azpiegiturak eta industriak, zein elementu historikoak). Ondoren, saia zaitetz haiek **hiru kategoriatan** sailkatzen, **antzinatasunaren** arabera: gaur egun zutik dauden baserri zaharrenak eraiki baino lehen paisaian zeudenak (XVI. mendea), Erdi Arotik Industrializazioaren hasiera arte paisaiari gehitu zitzaizkionak (XIX. mendearen bigarren erdia), eta elementu modernoak, XX. mendean eta XXI. mendearen hasieran paisaian txertatutakoak. Ariketa egindako toki bakoitzean kategoria bakoitzak pisu berdina al dauka, edo paisaia batzuetan elementu antzinakoenak dira nagusi, ala modernoak agian?

Paisaian antzinatasunaren arabera hiru "geruza" identifikatu ondoren, ausartzen al zara hiru garai horietako paisaia **imajinatu** edota **marraztera**? Agian gaur etxera bueltatzean informazio gehiago emango dizuten margolanak, argazkiak eta kontakizunak bila ditzakezu interneten edo liburutegian.



*Bide Berdea azken kilometroan, Arenara (Muskiz) iritsi aurretik*

Paisaiaren aldaketei buruz gogoeta egin ondoren, horien eta **paisaiaren kalitatearen** arteko erlazioan pentsatzea proposatzen dizugu. Aldaketaren bat paisaiaren kalitatearen gaineko inpaktu negatibo gisa izendatuko al zenuke?, egun inpaktu negatibo iruditzen zaizun elementuren bat sortu zen garaian positibotzat joko zela uste al duzu, eta alderantziz?, elementu gehienak antzinakoak direna paisaiak atseginagoak iruditzen al zaizkizu, edo paisaia modernoak dituzu gustukoago?, lagunak batekin bazaude, taldeko guztiek bat egin al duzue iritzi eta gustuetan?



*Arenako dunetatik ikuspegia, Muskizeko barnealdeko paisaiarantz*

# Bide Berdeko paisaiak

## Montes de Hierro – Burdinmendi Bide

**Berdeak** Enkarterrietako landa-paisaia eta hiri-ertzeko paisaien zati handia zeharkatzen du, garai bateko **meatzetako trenbidearen** arrastoa jarraituz, Enkarterrietako meategiak eta Nerbioi itsasadarreko zama-lekuak lotzen zituen. Trenbide honek burdina Traslaviñatik (Artzentales) Castro Urdialeseraino garraiatzea ahalbidetzen zuen.

Bide Berde honek **42 kilometroko** luzera du, Euskal Herriko bide berde luzeena delarik. Ibilbidea **hiru tartetan** bana daiteke: lehen **Traslaviñatik Gallartara** doa (31 km), bigarrena **Gallartatik Pobeñara** (8 km), eta hirugarrena Itsaslurreko bide berdean zehar **Pobeñatik Kobaroneraino** (3 km) doa.

Montes de Hierro – Burdinmendi Bide Berdeak eskainitako paisaiez goza ahal izan dezazun, **ENKARTERRIALDE Landa Garapen Elkarteak** jarraian modu laburrean azalduko dizkizugun **lau liburuxka** osatu ditu.



## Bide Berdeko paisaiak

Montes de Hierro – Burdinmendi Bide Berdeko paisaia-balioen aurkezpen orokorra. Hemen beronen paisaiei buruzko informazio orokorra aurkituko duzu.



## Gallarta - Pobeña

Tarte honek igarotako paisaiaren ezaugarri nagusiak azalduko dizkizugu, eta bere paisaien inguruan gehiago ikasteko bi jolas proposatuko dizkizugu.



## Pobeña - Kobaron

Tarte honek igarotako paisaiaren ezaugarri nagusiak azalduko dizkizugu, eta bere paisaien inguruan gogoeta egiteko bi jarduera proposatuko dizkizugu.

## Traslaviña - Gallarta

Tarte honek igarotako paisaiaren ezaugarri nagusiak azalduko dizkizugu, eta bere paisaia balioesteko bi ariketa proposatuko dizkizugu.

Bide Berdea  
Montes de  
Hierro -  
Burdinmendi

Montes de Hierro – Burdinmendi Bide Berdeari buruzko informazioa (fitxa teknikoak, mapa, profilak etab.):

[www.viasverdes.com](http://www.viasverdes.com)  
[www.montesdehierro.com](http://www.montesdehierro.com)  
<http://www.burdinmendi.org>  
[www.enkarterrialde.org](http://www.enkarterrialde.org)  
<http://www.montesdehierro.com/>  
<http://www.visitenkarteri.com/hacer/disfrutar-de-la-naturaleza/rutas/via-verde-burdinmendi.html>  
[http://www.magrama.gob.es/es/desarrollo-rural/temas/caminos-naturales/caminos-naturales/sector-noreste/galdames-sopuerta/galdames\\_sopuerta.aspx](http://www.magrama.gob.es/es/desarrollo-rural/temas/caminos-naturales/caminos-naturales/sector-noreste/galdames-sopuerta/galdames_sopuerta.aspx)



## Informazio gehigarria ENKARTERRIALDE Landa Garapen Elkartearen

Argitalpen hau 9 euskal Landa Garapen Elkartek 2011 eta 2013 bitartean garatutako "EAEko baserri-paisaia atlantikoaren balioa agerian jartzeko jarduerak" proiektuaren baitan sortu da.

Eduki, irudi eta diseinuaren ©: PAISAIA, SM

L.G.: SS-1335-2013